



## **252/2025 DEKRETUAREN 43. ARTIKULUARI BURUZKO JARRAIBIDEA: MINBIZIA EDO BESTE GAIXOTASUN LARRI BAT DUEN SEME-ALABA ADINGABEA ZAINTEKO BAIMENA**

252/2025 Dekretuaren 43. artikulua ezartzen du Hezkuntza Sailaren instrukzio bidez arautuko direla baimen hori baimendu ahal izateko baldintzak eta kasuak, bai eta lanaldi murrizketa lanaldi osoetan metatu daitekeen kasuak ere. Halaber, ezarritako epearen barruan aurkeztu beharko da baimena emateko eskatzen den dokumentazioa, eta luzapenak baimendu ahal izango dira kasu bakoitzean zehazten den dokumentazioa aurkeztu ondoren.

### **1.- Baimenaren erreferentziako araudia**

- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 49.e artikulua.
- 252/2025 Dekretuaren 43. artikulua (252/2025 Dekretua, abenduaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duena).

### **2.- Baimena emateko baldintzak**

Baimena emateko, honako hau egiaztatu beharko da:

1. Guraso biek lan egitea.
2. Gurasoen eta seme-alaben arteko lotura edo harrera iraunkorra edo adopzio aurrekoa izatea.
3. Adingabeak gurasoaren zaintza zuzena, jarraitua eta iraunkorra behar izatea.
4. Iraupen luzeko ospitaleratzea, bai minbiziaren kasuan, bai gaixotasun larriaren kasuan.
5. Behin ospitaleratzea amaituta, baimena mantendu edo eman ahal izango da, egiaztatzen bada adingabeak zuzeneko zaintza jarraitua eta iraunkorra behar duela gurasoaren aldetik, etxean tratamenduarekin jarraitzeko.
6. Espedienteak minbizia edo beste gaixotasun larriaren bat duten adingabeak zaintzeko mediku-aitorpena jaso beharko du, non tratamendu hori dela-eta egokitzen den baimenaren iraupena adieraziko den.
7. Baimen hau hartzen duten pertsonak, ikasturtean zehar aurkeztu beharko dute baimen hori emateko eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko eskaerak egiteko dokumentazioa.



### 3.- Baimena eskatzeko eta ebazteko epea.

1. Eskakerak gutxienez 10 egun balioudun eta gehienez hilabete 1 lehenago aurkeztu beharko dira. Araubide horretatik salbuetsita daude ikasturtearen hasierarekin bat datozen eragin-datak dituzten eskaerak.

Ikasturtea hasteko eskabideak aldi hauetan aurkeztu beharko dira, langile-taldearen arabera:

- 1.1. Aurreko ikasturteko lanpostu berean zerbitzuak ematen jarraitzen duten karrerako funtzionarioek ekainaren erdialdetik aurrera eskatu ahal izango dute baimena (adibidez: behin betiko destinoa duten lanpostu berean zerbitzuak ematea, lanpostu berean zerbitzu-eginkizunak luzatzea...).
  - 1.2. Behin betiko destinoa duten baina beteko ez duten karrerako funtzionarioek, behin-behineko destinoa duten karrerako funtzionarioek edo ikasturte-hasierako esleipen-prozesuko plaza bat esleitu zaien bitarteko langileek baimena eskatu ahal izango dute ikasturte-hasierako esleipenak behin betiko argitaratzen direnetik.
  - 1.3. Ordezlaguneko plaza bat esleitzen zaien bitarteko langileek irailaren 1etik aurrera eskatu beharko dute baimena.
2. Baimena ahalik eta azkarren izapidetuko da. Ebazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da.

### 4.- Eskabideak izapidetzea.

Irakasleen eskaerak izapidetzeko prozedura hau ezartzen da:

- 1) Eskatzaileak Tramitagune bidez aurkeztu beharko du sailaren web-orrian eskuragarri duen [eskabide-inprimakia](#), behar bezala beteta. Inprimaki horrekin batera, baimena emateko ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar diren agiriak aurkeztu beharko dira.

Osasun Zerbitzu Publikoaren txosten medikoak gutun-azal itxian aurkeztu beharko dira, eta kanpoaldean «KONFIDENTZIALA» adieraziko da, helbide honetan:

Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritza  
Hezkuntza Saileko Mediku Zerbitzua  
Donostia kalea 1  
01010 Vitoria-Gasteiz.

- 2) Hezkuntza Saileko zerbitzu medikoak aztertuko du aurkeztutako dokumentazioa, eta baimena emateko eskatzen diren baldintza medikoak betetzen diren egiaztatuko du. Adingabeak behar dituen zainketetarako murrizketaren-ehunekoa zehaztuko du. Dokumentazio medikoa berrikusi eta egoera aztertu ondoren, zerbitzu medikoak txosten bat egingo du, eta langileak kudeatzeko zerbitzuari helaraziko dio.



- 3) Langileak kudeatzeko zerbitzuak gainerako baldintzak betetzen diren aztertuko du, e betetzen badira, dagokion ebazpena ebatsiko du. Era berean, egiaztatzen bada baimena izapidetzeko nahitaezko dokumentazioa falta dela edo informazio gehigarria behar dela, 10 egun balioduneko epean aurkezteko eskatuko da. Dokumentazio hori epe horretan aurkezten ez bada, eskaeran atzera egin dela ulertuko da.

## 5. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Ezinbestekoa da hezkuntza-atarian eskuragarri dagoen [eskabide-eredua](#) betetzea, eskatutako hasiera-data adierazita, eta baliteke ebazpen-datarekin bat ez etortzea.

Era berean, eskabide-eredu horren atzealdean ageri den dokumentazioa aurkeztu behar da:

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- *Minbizia edo bestelako eritasun larria duten adingabeak zaintzeko [mediku-aitorpena](#); I. Eranskina (Nahitaez bete behar da)*
- *Gaixotasunaren egoerari, bilakaerari eta tratamenduei buruzko txosten mediko eguneratuak, bai eta egokitzen jotzen den dokumentazio mediko gutzia ere (gutun-azal itxian, kanpoaldean «KONFIDENTZIALA» hitza adierazita).*
- *Ospitalean denbora luzez ingresaturik egon beharra akreditatzen duen Osasun Zerbitzu Publikoaren txostena (gutun-azal itxian, kanpoaldean «KONFIDENTZIALA» hitza adierazita).*
- *Adingabeak gurasoen zaintza zuzenean eta modu jarraituan eta iraunkorrean behar duela egiaztatzen duen Osasun Zerbitzu Publikoaren dokumentazio eguneratua.*
- *Familia-liburuaren fotokopia edo harrera iraunkorra edo adopzio aurrekoa egiaztatzen duen dokumentazioa.*
- *Beste guraso, adoptatzaile edo harreragilearen Lan-bizitzaren txosten eguneratua Baimenaren iraupena hiru hilabetetik gorakoa izango dela aurreikusten bada, hiru hilean behin eskatuko da.*



- *Beste gurasoak baimen hau hartuko ez duelako zinpeko aitorten eguneratua. Nahikoa izango da zinpeko aitortenean honako berariazko adierazpen hau jasotzea: "Ez dut baimen hori hartuko beste gurasoak baimena ematen didan bitartean".*
- *Adingabearen arreta- edo eskolatze-zentroaren ziurtagiria, baimenaren xede den ikasturteari dagokion ordutegia jasotzen duena. Eskaera egiteko unean ziurtagiri hori ez badago, aurreko ikasturtekoa aurkeztu beharko da, eta lortu bezain laster aurkeztu beharko da erreferentziako ikasturteari dagokiona. Haren edukitik ondorioztatzen bada emandako murrizketaren ehunekoa berrikusi behar dela, aldatu ahal izango da, ebazpen berri baten bidez.*
- *Ikastetxearen ziurtagiria, eskolatutako azken hiruhilekoan adingabearen absentismoa zehazten duena.*
- *Baimenaren iraupena hiru hilabetetik gorakoa izango dela aurreikusten bada, hiru hilean behin eskatuko da.*
- *Baimena behar bezala baloratzeko eta emateko egokitzat eta garrantzitsutzat jotzen den dokumentazio guztia aurkeztu ahal izango da.*

## 6.- Baimenaren iraupena.

Instrukzio honetan ezarritako epeen barruan eskatutako baimena, gehienez ere, ikasturte baterako emango da, eta, nolana ere, zerbitzu medikoak aurreikusitako iraupenaren mugarekin.

Hiruhileko batetik gora ematen bada, dagokion dokumentazioa aurkezteko eskatuko da, hala nola beste gurasoaren lan-bizitzaren txosten eguneratua, eskola-absentismoaren ziurtagiria...

Ikasturtean zehar emandako baimenak eman diren ikasturtea amaitu arte luzatu ahal izango dira.

Ondoz ondoko luzapenak eman ahal izango dira, eta horietako bakoitzak hasierako emakidarako aurreikusitako gehieneko iraupena izango du. Luzapen horiek baimentzeko, beharrezkoa izango da eskatutako dokumentazio eguneratua berriro aurkeztea.

## 7.- Lanaldi-murrizketa.

Lanaldia gutxienez % 50 eta gehienez % 99,99 murrizteko baimena eman ahal izango da, adingabearen zaintza-premien arabera. Premia horiek Hezkuntza Saileko zerbitzu medikoak baloratuko ditu.



## **8.- Baimenaren onuradunaren betebeharrak**

Onuradunak ahalik eta lasterren jakinarazi beharko du baimena ematea eragin zuten baldintzak aldatzen dituen edo baimena azkentzea dakarren edozein gorabehera.

Betebehar hori ez betetzeak bidegabe jasotako ordainsariak erreklamatzeko ekarriko du, hargatik eragotzi gabe onuradunak inguruabar hori ez jakinarazteagatik izan dezakeen diziiplina-erantzukizuna.

## **9.- Baimena azkentzeko arrazoiak**

1. Lanaldi-murrizketa bertan behera uztea, arrazoia edozein dela ere.
2. Gurasoak, adoptatzaileak edo hartzaileak adingabea zuzenean, etengabe eta modu iraunkorrean zaintzeko beharra desagertzea.
3. Adingabearen guraso, adoptatzaile edo hartzailearen batek lan-jarduera uztea, edo haietako edozeinek ordainsari osoak jasotzea, EPOEren 49.e) artikulua aplikatuz, edo Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testuategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 190. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako prestazioa jasotzea.
4. Oinarrizko araudian ezarritako muga-adina betetzea.
5. Hezkuntza Saileko langileak kudeatzeko zerbitzuak eskatutako dokumentazioa ezarritako epean ez aurkeztea.

## **10. Baimena salbuespenezko inguruabarrengatik aldatzeko eskaera**

Baimenaren onuradunek edozein unetan aurkeztu ahal izango dute baldintzak aldatzeko eskabidea, Tramitaguneraren bidez, dagozkion egiaztagiriekin batera.

## **11. Metaketa lanaldi osoetan**

Behar bezala zehaztu eta egiaztatutako salbuespenezko egoeretan, dagokion zerbitzuak eskatu eta baloratu ondoren, murrizketa lanaldi osoetan metatzeko aukera aztertuko da.

Metaketa lanaldi osoetan emateak ez du inola ere eskubiderik sortuko adingabearen patologia okerrera egiteak aurretik emandako murrizketaren ehunekoa handitzea dakarrenean.

Eskolarik gabeko aldiak ez dira metatuko hurrengo eskola-aldietarako.

## **12. Jarraibide honetan jaso ez diren inguruabarrak.**

Jarraibide honetan jaso ez diren inguruabarrak modu independentean baloratuko dira, egoeraren arabera.



### **13.- Bateragarritasuna beste baimen batzuekin**

Baimen hori beste edozeinekin bateragarria den zehaztuko da kasu zehatz bakoitzean, lanaldi-murrizketaren ehunekoak eta bateragarritasuna eskatzen den beste baimenaren izaera kontuan hartuta.

Nolanahi ere, baimen hori bateragarria izango da legezko zaintzaratik lanaldi-murrizketarekin, betiere baimendutako murrizketaren ehunekoak horretarako aukera ematen badu.

*Jarraibide hori berrikusi eta eguneratu ahal izango da, aplikatu beharreko araudira eta hura aplikatzean hautematen diren kudeaketa-beharretara behar bezala egokitzeko.*

Vitoria-Gasteizen, sinaduraren egun-orduan

**UNAI NIETO MARIJUAN  
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**